

## BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

### 2840

*165/2017 DEKRETUA, ekainaren 6koa, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Arabako Foru Aldundiak okupatzea, nahitaez desjabetzeko, eskubide eta ondasun hauek: Gaubean (Araba), «Villanañeko hondakin-urak Espejoko eskuin ertzeko estoldara isurtzeko proiektua, Gaubeako hondakin-uren araztegiaren araz daitezen» burutzeko beharrezko ondasun eta eskubideak.*

Arabako Foru Aldundiak, «Villanañeko hondakin-urak Espejoko eskuin ertzeko estoldara isurtzeko proiektua, Gaubeako hondakin-uren araztegiaren araz daitezen» delakoaren espedientea formalki onartu eta gero, proiektua gauzatzeko lur guztiak erabiltzeko beharra adierazi zuen.

2016ko azaroaren 29an, Arabako Foru Aldundiak nahitaezko desjabetze espedientea hasia zein ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zuen, hamabost eguneko epe prentsan eta 2017ko otsailaren 1eko Arabako Aldizkari Ofizialean (13 zk.). Geroago, 2017ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Arabako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzari proiektuak eragiten dituen eskubide eta ondasunak okupatzeko premiazotasunaren adierazpena eskatzea erabaki zuen, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak banakatuta eta zehazturik agertzen dira dosierrean jasotako zerrendan, identifikazioak egiteko datu askirekin agertu ere. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta bi alegazio aurkeztu ziren, administrazio-espedientearen adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espedientea izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luza ezinezkotzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Villanañeko hondakin-uren arazketa bermatzea, baita Angostoko Santutegikoak eta kanpinekoak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f artikuluan xedatzen denaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio nahitaez desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzeko, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenean: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde antolamenduaren eskumenak dituen sailburuari zegokion horretarako proposamena aurkeztea Gobernu Kontseiluari.

Hori dela bide, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak, 2017ko ekainaren 6an egindako bilkuran, aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. ean xedatutakoari jarraituz, nahitaez desjabetzeko, «Villanañeko hondakin-urak Espejoko eskuin ertzeko estoldara isurtzeko proiektua, Gaubeako hondakin-uren araztegiaren araz daitezen» beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak Arabako

Foru Aldundiak urgentziaz okupatu beharrekoak direla deklaratzeari. Berariaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztu eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

#### AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea amaitzen duen dekretu honen aurka, lehenik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jar dakiok Gobernu Kontseiluari hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan bi hileko epean. Epeok dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Busturian, 2017ko ekainaren 6an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.